

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiekturako, baliabide fisikoak erabiliko ditugu. Beraz, baliabide fisikoetan, lokal bat alokatu beharko dugu enpresa jartzeko eta produktua fabrikatzeko, webgune bat sortu beharko dugu bezeroekin harremanetan jartzeko, gure produktua saltzeko eta mugimenduak kontrolatzeko, arazoak konpontzeko erabiltzaileen iritzietan oinarrituta. Baina, noski, webgunea kontrolatzeko ordenagailu bat eta beste enpresa batzuekin harremanetan jartzeko telefono bat ere beharko dugu.



Ezinbestekoa da ere gure produktua publizitzea, jendeak jakin beharra du guk eta gure produktua existitzen dela. Horretarako, baliabide intelektualen edo giza baliabideen barnean, elektrizitatean eta webguneak diseinatzeko ezagutza, salmentarako eta antolaketarako ezagutza eta abilezia duen norbait beharko dugu. Batez ere, gure produktua ezagutzera emateko eta jendearengana iristeko eta haiek konbentzitzeko.



Gainera, gure bezeroak gure produktua erosi eta erabiltzeko aukera eduki ondoren, beraiekin elkartzeko eta beraien zalantzak edo gomendioak guri azaltzeko, lokal bat edukiko dugu. Horretaz gain, lokal honetan egin behar ditugun bileren orduak zehazteko, berezeroek gu deitzeko telefono bat edukiko dugu lokalean harreman hori lortzeko.

Funtsezko baliabideak gure enpresa funtzionatzeko gauzarik garrantzitsuenak dira. Gure produktua aurrera eramateko eta gure ideia funtziona dezan, taldekide bakoitzak zerbait aportatu beharra du. Hasteko, Ikerrek esperientzia eduki du beste enpresa batzuekin harremanetan jartzeko eta uste dugu gure proiektuan ideia hau aportatu dezakeela. Lukenen kasuan, ordenagailuekin eta teknologiazko tresnekin oso trebea da, beraz gure produktuan aportatu dezakeena ordenagailuaren erabilera

izango litzake. Gaizkak betidanik diseinuak egin ditu eta uste dugu gure produktuaren iragarkiak egiteko gaitasuna duela. Azkenik, Gorkak eta Mainerrek diru mundua oso ondo kontrolatzen dutenez, diru-sarreretan zerbait aportatu dezaketeela uste dugu.